

## **BEZEROEN SEGMENTUA**

Gure enpresaren kasuan, bezeroen sailkapena ez dugu genero edo adinaren arabera egin beharrik. Izan ere gure produktuekin edozein genero eta adinetakoak interesatu daitezke, baina bezeroen ezaugarriak honako hauek izango lirateke:

- Osasuntsu jan nahi dutenak.
- Etxean bertan barazkirik ez duen edonor.
- Begetarianoak eta beganoak.



Bestalde, edonork izango du aukera gure bezero izateko, baina gure helburua da bezero leialak edukitzea. Horretarako, GURESORO-ko txartela bat sortuko dugu, erostera joaten diren aldiro, txartela horretan puntuak pilatzen joan daitezzen, azken hauekin deskontu batzuk lortuz.